

GARRAIO PUBLIKOAK ALDAKETAK IZANGO DITU ERREGEEN KABALGATA DIRELA-ETA

Erregeen Kabalgatak ibilbide hau egingo du: Hernani, Askatasunaren hiribidea Urbieta, Prim, Bergara, Idiakez, Gipuzkoa pl., Legazpi eta Bulebarra. Hori dela-eta, urtarrilaren 5ean, hiriaren erdialdearen zati handi bat zirkulaziorako itxita egongo da **16:30etatik 20:00ak arte**.

Horrek aldaketa batzuk ekarriko ditu autobus linea gehienetan, bai hiri barrukoetan bai inguruetakoetan. **Autobusak, beranduenez, 17:00etan aterako dira Bulebarreko eta Gipuzkoa plazako geralekuetatik.**

Bestalde, Okendo kalearen noranzkoa aldatuko da; horrela geraleku batzuk egokitu ahal izango dira hiriaren ekialdeko autobusetarako.

Andia eta Miramar kaleko trafikoa erdi ordu beranduago irikiko da, karrozak Martutenera berriro eraman arte, hortxe aparkatuko bait dute.

ALDAKETAK AUTOBUSEN IBILBIDEETAN

Mendebaldekoak.

San Martin kalea Easo kalearekin gurutzatzen den tokitik egongo da zirkulaziorako itxita. Autobusek Easo kaletik joan beharko dute eta Zubietan bira egin, Ibaeta aldera bueltatzeko.

T1. Lasarte, T2. Zubieta, T3. Andoain, T4. Asteasu, T5. Tolosa eta G2. Andoain. Terminala Zubieta 14an izango dute. Artzain Onaren plazako, Okendo kaleko eta Gipuzkoa plazako geralekuek ez dute zerbitzurik izango.

Hegoaldekoak.

G1. Hernani (Galarretatik). Ez da Okendo kaleraino helduko, Easo kalera iritsi ondoren Easo Zubietan buelta emango du eta azken geldialdia San Martín-Manterola kalean izango du.

A1. Hernani (Astigarragatik). Okendon geldituko da, eta ibilbide hau egingo du: Okendo, Askatasunaren hiribide Santa Katalina zubia, Iparreko geltokia (hemen geldialdi bat egingo du) eta Federico Garcia Lorca pasealekua; Antso Jakitunaren hiribidetik aurrera, ohiko ibilbidea egingo du. Ez dira erabiliko Urbieta eta Mendeurrena kaleetako geralekuak.

Ekialdekoak

Ibilbidea aldatuko dute. Erregina Erregentearen kaletik Okendora joko dute –kale horrek noranzkoa aldatuta izango du– eta Askatasun hiribidetik Ekialderantz itzuliko dira.

Ekialdebus. Okendo kalean izango dute. Linea horiek Erregina Erregentearen kaletik sartuko dira Okendora. **E21** F.Garcia Lorca 2an izango dute geralekua.

UK01, UK09. UK10 ez dira Askatasun hiribideraino iritsi, Autobusen geltokitik bere bidera abiatuko dira.

TAXI ZERBITZUAREN GERALEKU ALDAKETAK

Hiriaren erdialdean egingo diren aldaketak direla-eta, zenbait taxi geraleku ere aldatu beharko dira. Hala, kabalgatak dirauen bitartean, ez dira erabiliko Bulebarreko, Askatasun hiribideko eta Idiakez kaleko geralekuak. Taxiak Askatasun hiribideko atari bikoitien lehenengo etxadian jarriko dira, Okendo eta Santa Katalina artean.